



## ◆ ATLETISMOA Eva Esnaolak Espainiako errekorra hautsi du: 214km 24 ordutan

Joan den asteburuan, 24 orduko lasterketa izan zen Bartzelonan eta bertan, Eva Esnaola hernaniarrak Espainiako errekorra hautsi du, 214,666 kilometro eginda. Aurreko errekorra Pilar Zorillak zuen, 211km-rekin. Saillkapen orokorrean hirugarren postua lortu zuen Esnaolak. Xabier Salillas hernaniarra ere bertan izan zen eta 11:25:36 denboran proba utzi zuen 75,712 km eginda. ||

## ◆ PELOTA - Emakumea Pelotari



Gipuzkoako txapeldun eta azpitzapeldunak, palatari eta ordezkarien artean, larunbatean Tolosan.

## Irazustabarrena, Semper eta Perez hernaniarrak, Gipuzkoako txapeldunak

Irazustabarrena eta Semperrek 30-20 irabazi zieten Goikoetxea eta Huiziri, jubeniletan; eta Bañales eta Perezek 30-17 Lendinez eta Gutierrezi, senior bigarren mailan.

LARUNBAT honetan Emakumea Pilotariko Gipuzkoako finalak jokatu dira Tolosako Beotibar pelotalekuan eta bertan, 6 hernaniar izan dira protagonista. Horietatik, Amaia Irazustabarrenak, Maider Semperrek eta Eneritz Perezek jantzi zituzten txapelak.

Jubeniletan, bi bikote hernaniar lehiatu ziren: Amaia

Irazustabarrena-Maider Semper/Miren Goikoetxea-Maider Huizi eta aurrenekoek irabazi zuten 30-20. Lau pelotariak ondo aritu ziren eta agerian utzi dute modalitate honetan Hernanik duen harrobiaren maila.

Senior bigarren mailan, bi atzelari hernaniar izan ziren aurrez aurre: Eneritz Perez eta Eli Gutierrez. Perezek

Bañalesekin jokatu zuen eta 30-17 irabazi zieten Lendinez eta Gutierrezi. Txapeldunak hasieratik nagusitu ziren. Bi finaleran Irazustabarrena eta Perez izan ziren gehien nabarmendu ziren pelotariak.

**Ander Lopez eta Mikel Zurutuza txapelketako azken fasean, trinketean** Gipuzkoako Trinkete Txapelketan, txapelketako azken fasea jokatzeko sailkatu dira, Ander Lopez jubeniletan, eta Mikel Zurutuza senior bigarren mailan. Lopezek 35-20 irabazi zion Urrietari eta Zurutuza 40-13 Gaztelekuri. Hodei Noble berriz, txapelketatik kanpo geratu da, partidua baten faltan, 12-30 galdu ondoren, Intzaren aurka. ||

## ◆ ARRAUNA Kadeteetan Hernani aurrena

Joan den igandean, batel estropada izan zen Donostian, Uru-mea ibaian eta bertan, kadete mailan, Hernani A taldea izan zen irabazlea Getaria eta Sanpedroren aurretik. Hernani Bk ere lan bikaina egin zuen eta laugarren postuan geratu zen. Gainerakoak: seniorrak 3garren, neskek 6garren eta infanti-lak 11garren. Liga urtamilaren 22an hasiko da eta geratzen den azken hilabete honetan prestatzen jarraituko dute. ||

## ◆ ARETO FUTBOLA Yone Boutiquek 5-3 galdu zuen

Yone Boutiquek 5-3 galdu zuen larunbatean, Zurt taberna azkoitiarren aurka. ||

## ◆ PLENDA Arau Subsidiarioak, 3 udal etxebizitza eta apartamentu tutelatuak, gaurko gai nagusiak

Plenoa izango da gaur, 18:00etan Pleno aretoan (2. pisua). Bertan, besteak beste, erabakiko dute Arau Subsidiarioei alegazioak egin ondoren, behin-behineko onarpena ematea, 3 udal etxebizitza alokairuan jartzeari eta Ongintzako apartamentu tutelatuak martxan jartzeko ordenantza onartzea. ||

## ◆ SANTO TOMAS EGUNA

## Txistor-jatea gaur, Goiz Eguzkin eta Inmakuladan

GAUR, Santo Tomas Eguna izaki, txistor-jatea antolatu dute Goiz Eguzki jubilatutako etxean eta Inmakulada ikastetxean. Goiz Eguzkin, aurretik, Udazkeneko Joko eta Txapelketetako sari banaketa egingo dute. Goizeko 11:00etan izango da eta ondoren bazkideek txistorra jateko aukera izango dute.

Inmakuladan, txistorraz gain, azoka txiki bat ere izango da, 10:30etatik aurrera. Herritar guztiak daude gonbidatuta. ||



Sorgintxulo auzoak, San Joan Konpartsak eta eta Portu auzoak asteburuan ospatu zuten Santo Tomas.

**IRRIGOENEA OKINDEGIA**  
EGUNEROKO OGI BEROA

GAZTELOKO PASTELAK eta TARTAK ENKARGUZ  
OPIL ETA PASTA BIKAINAK

BARIETATE HAUNDIA INTEGRALETAN:  
OJALDREZKO PALMERAK  
KURASAN ZEREALDUNA  
MADALENAK  
OGI INTEGRAL HAZIDUNA

BIHAR ZOZKETATUKO DUGU XEXTUA  
ONDO PASA SANTO TOMAS EGUNA  
ETA EGUBERRI ON!  
Lizeaga 1 (Portalez kanpo) telf. 943 33 17 25  
HERNANI

sulabe

Ono pasa gabonetan!

**mikel armendariz**  
proiektu eta instalazio  
elektrikoak  
Tel. 649 846 422  
HERNANI

Eguberri On guztioi!

**ITXASPE**

Arandegia  
Antziola 5  
Tel.: 943 330 365  
Mobi.: 653 74 10 97  
20120 Hernani

**HERNANI ENGLISH**  
**HIZKUNTZAK**  
(GURE INGELESETXEA)

Abenduaren 23an, osteguna, hasiko ditugu gabonetako oporrak. Eta urtarrilaren 7an, ostirala, hasiko dugu ikastaroen 2, hiruhilekoa

Eguberri On guztioi!!  
Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08  
Kale Nagusia 41 - 1

**TELEFONOAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103  
● **FARMAZIAK** ● **Eguzte**: **Castilla** Urbieta 7 - 943 552941 ● **Gauze**: **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793

**EGURALDIA**  
**GAUR** Haizea zakartu eta giro tristea-  
goa izango dugu. Lainoak izan-  
go dira nagusi eta noizean  
behin euri pixka bat egingo du.  
Min.9° / Max.14°.

**BIHAR** Temperatura freskoekin eta  
euriarekin emango diogu on-  
gietorria neguari. Tempera-  
tura 3-4 °C jaitsiko da eta  
elur-kota 1000-1100 m-ra ko-  
katuko da. Min.9° / Max.11°.

## ❖ UDALA - Web orri berria

# Web orri berria martxan, informazioa eskurago jarriz eta partehartzea bultzatuz

Iruzkina egiteko aukera izango da eta sare sozialetarako loturak egongo dira. Horrez gain, gestio asko internetez egin ahal izango dira.

GAUR, Udalaren web orrian sartzen denak guztiz itxuralduta ikusteaz gain, informazioa eskurago eta berrietan parte hartzeko aukera izango du. Hori da behintzat Udalak lortu nahi duena web orri berri honekin. «Udalak herritarren zerbitzura egon behar du osotasunean eta bide horretan web orriak berebiziko garrantzia zuela ikusten genuen. Guk egiten duguna herritarrek jakin behar dute. Eta horrez gain, beraien beharrik jakin nahi ditugu eta horregatik web orri honetan kontuan hartu dugu zerbitzua ez izatea norabide bakarrekoa; hartu-emanekoa baizik», azaldu zuen Marian Beitialarrangoitia Hernaniko alkatea atzo, aurkezpenean.



**Inhar Olano Harmaneko ordezkaria, Marian Beitialarrangoitia Hernaniko alkatea eta Jon Garmendia Udaleko informatikoa.**

Gaineratu zuen web orri hau irekia dela eta gauza berriak sartu edo kentzeko aukera ematen duela, orain arte ez bezala. «Beraz, ez dugu bidea bukatu; aurrera begira, egokitzen joango gara».

### 7 atal nagusi

Web gunea berritzeaz Harman enpresa arduratu da eta bertako ordezkariak, Inhar Olanok

edukiaren eta diseinuaren berri eman zuen: «Web gune zaharrak informazio asko ematen zuen, baina zailtasunak zeuden informazioa aurkitzerakoan; fokoa falta zuen. Orain notizi bat nabarmenduko dugu. Horrez gain, iruzkinak egiteko aukera izango da eta egun, hain garrantzitsuak diren sail sozialetarako loturak egongo dira, hala nola, Twitter, Facebook...».

Erabilgarritasunari lotuta, honako atalak egongo dira: Berriak, Zerbitzuak, Tramiteak, Herria, Udala, Multimedia eta Bisita gaitzazue. Bilatzailea ere izango du. Euskeraz eta gaztelaz izango da eta ezinduentzako egokitua ere bai.

### Zerbitzu Telematikoak

Jon Garmendia Udaleko informatikoa Zerbitzu Telematikoak atala azpimarratu zuen, horren bidez, herritarrek gestio ugari internetez egiteko aukera izango dutelako Udaletxera joan gabe. Besteak beste: erroldatze ziurtagiria lortzea, tasak eta zergen kontsulta egitea, ordainagiriak eskuratzea, isunak ordaintzea...

Horretarako identifikazio digital bat izan behar du erabiltzaileak eta hori lortzen da ONA edo Izenpe txartelean, KZgunean eskatuta, edo NA elektronikoen bidez. Garmendiak azaldu zuen segurtasunerako, komenigarria dela txartel irakurlea erostea. ||

## 🔗 Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

### Neska larru gorri, santuak ere larri

Hasteko, benetan garrantzitsua dena esan nahi dut, Xalaparta etxea ez dute botako. Eta orain iraingarri iruditzen zaidana eta idatzi honi jarri diodan izenburua jartzeraz bultzatu nauena. Etxea ez dute botako Mikel Arrietak jarritako alegazioa onartu delako. Denok ezagu-

tzen dugun bezala, Gobernu Talde honen helburu guztien defendatzaile porrokatuena da.

Honek garrantzi handia du egungo Gobernu Taldearentzat "izan den partehartzaileena" bera, eta pisu gehiago izan du hernaniar honen iritzia, gauza bera eskatzen zuten 3000 pertsonen sinadurek baino. Eta pisu gehiago izan du

alderdi politikoek egindako eskaera ezberdinak baino.

Beste behin argi geratu da esatera hori oso modan dagoela eta lagun batek indar gehiago duela 3000 sinadurek baino, oraingo honetan behar bezala bildu arren.

**Andoni Amonarraz Gómez**  
**EAJ-PNVko bozeramailea**  
(\*Erredakzioan euskeratua)

## ❖ URUMEA IKASTOLA

### Saskiaren zenbaki saritua 0.320 da

Urumea ikastola BHIko saskiaren zozketa egin da eta honakoa da zenbaki saritua: 0.320. ||

### Mundu bat, jantzi

**tradizionalena.** Ane Albisu donostiarrak, eta Hernanin irakasle izandakoa, hitzaldia eman zuen ostiralean. Baserritar jantziak, arropa tradizionalak nola jantzi, nola atondu azaldu zuen Albisuk. Historia pixka bat ere egin zuen, eta hor mundu zabal bat dagoela ikusi zuten ikus-entzuleek. Aurrerago, beste saio bat egitea ere hitz egin zuten. ||



## Eskelak


Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**II. URTEURRENA**  
**Pedro Mari Goikoetxea Elorza**  
**"Tapatxulos"**

2008ko abenduaren 21ean hil zen, 66 urte zituela.  
**-Goian Bego-**

*Bi urte hauetan falta izan arren zure barre alaia ez dugu inoiz ahazten, oroimenak dakartza anitz gogorapen, bihotz izandakoak ez zarete itzaltzen.*

**Zure emaztea Isabel eta Pello eta Carol**



**Hernanin, 2010eko abenduaren 21ean**

## ❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

**Etxebizitza alokagai Erenotzun**, baserri batean. Toki lasaia eta eguzkitsua. 80m<sup>2</sup> (600€). Deitu: 636 627 462. Pisu bila nabili alokairuan, Hernanin. 2 logela eta berogailua (ingenieroa: solbentzia eta seriotasuna). Deitu: 600 609 754.

**Garaje itxia alokagai**, Zinkoenean. Deitu 677 513 257

**Kapritxozko etxea salgai Santa Barbara auzoan**. 3 logela, 3 komun, saloi handia, sukaldaria. Behean soziedadea eta ganbara logela bihurtuta, komunarekin. Garajea (3 kotxe). **Prezio negoziagarria eta erreztasunak ordaintzen**. Deitu: 629 682 827.

**Audi TT FSI salgai** (2000cc, 200zaldi, 2007urtekoa). **Oso egoera onean, beti garajejan**. 26.500€. Deitu: 658 058 330.

**ETXEKO KONPONKETAK egiten dira**; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Enara Goikoetxea**. Terapija energetikoak. Kristaloterapija, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)

**YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA**. Fotodepilazio berria, **prezio bereziak eta pertsonalizatuak**. "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzietza 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

**Alicia C.C.**: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: **Coaching, PNL, erlazioak, Flores de Bach, hipnosia...** Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

**Iñigo Royo Masajista**. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologikoa eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapija,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

**OUTLET EXPOSIZIO BERRIA**

# Keunka®

MUEBLE RUSTICO

**ORDUTEGIA**  
Ast.-Ost.  
09:00-13:00  
15:30-19:00  
Larunbata  
09:00-13:00  
15:30-20:00

**OUTLET !!**

**ALTZARIAK ETA ARGITARIAK**  
**AURREKO DENBORALDIETAKO**  
**"Stock"-a**

**MUNDU GUZTIKO ALTZARIAK**  
**DENA KOSTU PREZIOAN !!**

**OUTLET !!**

**Pol.Ind. ZUBIONDO - NAVE 4B-1 (20120, HERNANI). Tel: 943 33 10 81**

**www.keunka.com**